

danbolin

2007/06 74. alea

Jardunian
Jesus
Jegiguren

gaztezulo
ETI ETI ETI ETI ETI ETI ETI ETI

gaztezulo.com

martxan da!



Hileko argazkia" atalerako proposamenak bidali zenituztenen artean MP3 bat zozketatu genuen eta Beñat Etxaberi tokatu zitzaion. Zorionak!

Gogoratu Danbolin al-dizkariaren orriak irekita daudela irakurleen proposamenetara. Orain Kale/bale atala osatzen laguntzeko aukera luzatu nahi dizugu. Herri nahiz auzoetan gaizki edo ondo dagoen zerbait salatu edo gorai-patzeko aukera duzu. Bidali argazki bat eta testua danbolin@topagunea.com helbidera



**AUTO SALMENTA ETA KONPONKETA
25 URTEKO ESPERIENTZIA**

Arteaga, z/g. Apdo. 61 20740 Zestoa
Telf.-fax: 943 148 063 (Iraeta) Telf. 943 147 545 (Zestoa)



ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D ereduetan



TITULAZIOA: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Kontsulta pribatuetan
- Zaharren egoitzetan
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Hortz-kliniketako laguntzailea
- Gaixoen zaintza

AURREMATRIKULA: Ekainaren 1etik 7ra (biak barne) **MATRIKULA EGITEKO EPEA:** Ekainaren 20etik uztailaren 6ra (biak barne)

J.M. Iparragirre B.H.I

Santa Barbara Bidea z/g 20700 Urretxu Telefonoa/Faxa: 943 721403-721413 e-posta: jmiparragirre@edunet.es www.iparragirre.net

EGIA BOROBILAK.



herria zertarako? – periara joateko
peria zertarako? – zerria erosteko
zerria zertarako? – agintari egiteko
agintaria zertarako? – nagusia gordetzeko
nagusia zertarako? – herria larrutzeko
herria zertarako? – periara joateko
...

1969an kaleratu zuen Joxanton Artzek *isturitzetik tolosan barru*. Orainsu faksimilea argitaratu dute. Joxanton ez dago oso harro lanaren parte handi batekin, “halako gordin antxa, hobetu behar handia”, ikusten baitie poemei oraino...” Niri, berriz, txikitzailea iruditzen zait gaur, orain berrogei urte iraultzailea izan behar zuen. Erreparatu argazkiari. Disko erako kartoizko gurpil bat du liburuak kontrazalean ezkutatuta. Bi zulo borobiletatik ikusten da diskoan idatzita dagoena. Goiko zuloan “herria zertarako?” jartzen du; behekoan “periara joateko?”. Diskoaren goialdea ere bistan dago eta gezi bat agertzen da ezkererantz. Izan ere erlojuaren orratzen kontra bultza behar da diskoa irakurtzen segitzeko.

O

Noizbait nonbait leitu nuen zitak (aipuak, jendeek esandako edo idatzitako burutazio gogoangarriak) bilduko lituzkeen liburuia izango litzatekeela liburu perfektua. Nik derri gor izan behar dut belarri atzean lapitza irakurtzen hasterako. Zerbaitek atentzia ematen didanean azpimarratu eta orriaren muturra tolestu egiten dut. Harrigarria iruditzen zait idazleen gaitasuna. Idazterakoan norbere egia husteak hausnartzea eta biluztea esan nahi du. Beldurrik patetikoena, mixeria maitagarrienak, gorroto barregarrienak, frustrazio garratzenak... denak bistara jartzea. Eta horretarako barrenak izan behar dira. Horiek denak azaleratzeko beldur gara. Horiek larruazalaren barruan egon behar dute nonbait. Gorritu eta izerditu ere egiten zaigu azala horietakoren bat zirrikitu batetik ihes egin nahian sumatzen dugunean. Gairen baten bueltan zerbait idatzi behar izaten dudanean gai horri buruz irakurrirako aipuekin akordatzeko naiz eta paperean jartzen ditut. Gero ez zait okurritzen horiei eransteko ezer. Eta ezin egin artikulua besteen aipuekin bakarrik. Ezgauza sentitzen naiz. Hara hor nire ezintasunetako bat. Zenbaiten iritzira ezintasun ttikia izango da, baina letrak juntatzetik bizi nahi duenarentzat...

Hauteskundeez zerbait esatea nahi nuen nik.

Zirkulua itxiko dut Artzeri hartutako gogoetara itzuliz: Egia borobila?
Zirkularra bai behintzat.

jon artano izeta

danbolin EK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

argitaratzailea: Danbolin Zulo elkarte. Kultur Etxea. Gurutze z/g. 20740 Zestoa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 945 147 125 e-mail: danbolin@topagunea.com

danbolin: Jone Bergara, Edurne Korta, Olaia Salegi, Manuel Arregi, Jon Artano, Nagore Telleria, Urko Canseco, Miguel Santamaría, Margari Eizagirre, Joxeba Larrañaga, Onintza Irureta, Alazne Olaizola, Naiara Exposito, Maria Antonia Artano

diseinua eta maketazioa: Eneko Aristi azaleko argazkia: Dani Blanco
inprimategia: Gertu (Oñati). lege gordailua: SS-1108/2000 ISSN: 1576-9429

34612141619

INKESTA ENBIDOAK

JESUS EGIGUREN

TXOLARTE

ETXERAT

UDALEKO BERRIAK

DANBOLIN ZULO

diruz lagundutakoa



Zestoako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

enbidoa I. EMAKUME ARRUNTAREN KOPLAK

Garai zailak bizi ditu gizakiak, alajaina. Baina emakume naizen aldetik, errealitatearen alde femeninoa hobeto ezagutzen dut eta horretaz arituko natzaizue oraingoan. Ez da erraza gaur egun emakume izatea. Alaba ona izan behar duzu, zure lanbidean konpetentea, etxe perfektuan bizi, lagun eta bikotekide aparta izan, izara artean plusmarkisten pare aritu eta munduko amarik onena izateaz gain, hamabost urteko neskatxa baten gorputza mantendu.

Ez da kasualitatea gogoeta horietan “bikini operazioaren” erdian aritzea. Jakina da gose puntu batek adimena erretzen duela, badakizue, “gosea baino argiagoa izan”. Baina hori gezurra da. Gosea ez da argia. Gosea oso iluna da. Hamaika ahaleginetan arituko gara hainbat pertsona egun hauetan liraintasunaren idealari jarraiki. Hala ere, barkatu esatea baina alferrik ari gara. Eguzki galgatan Itzurungo hondartzara

iristeko aldapa haurraren aulkitxoari bultzaka izerdi patsetan igotzea lortu ondoren, eta hankak erretzen dizkizun hondar gainean tripa ezkutatzeko arnasarik hartu gabe ihes egin dizun haurraren atzetik korrika dinbili-danbala zoazenean, alferrikakoa bilakatzen da benetan “bikini operazioa”. Adio glamourari!

90-60-90. Konbinazio magikoa. Bularra, gerria eta ipurtaldea neurtzeko koordinatuak. Benetan diotsuet, bularretik gora, ganbara aldean, emakumeok baditugula neurtu beharreko eta neurtzen ez diren hainbat altxor. Nola neurtzen dira irakurritako liburu guztiak, emandako muxu eta besarkada,

inoiz idatzirik poema ederrak, unibertsitatean ikasirik guztia, edota tartean behin bururatu eta inguruko mundua bizitoki ederrago bihurtzen duten ideia bikain horiek?

Buruari bueltaka ari naizela, euskal kulturaren hain ezagunak diren “Gizon arruntaren koplak” etorri zaizkit gogora. Benetan ederra iruditzen zait arrunt izateari bere xarma aurkitzea. Hona hemen nire enbidoa: mesedez, idatz ditzala norbaitek “Emakume arruntaren koplak” eta zin dagizuen nire bizitzarako dekalogotzat erabiliko ditudala. Lasaigarria benetan arruntak garela onartzea. Hona hemen koplak berriak idazten hasteko ideiatxo bat: “Ez naiz ni neska txarra, baina zer arraio, Superwoman izateko ez bainintzan jaio...”



KALE.

San Joan kalean, etxe berriak egiten ari diren inguru horretan, autoak eta kamioiak edozein lekutan aparkatzen dituzte, eta espaloietako eta zebra-bideetako pasara oztopatu egiten dute.

BALE. Aizarnako herri sarrera txukundu dute, eskola berriaren paretik hasi eta eliza aldera arte. Ba zegoen premia!

Jone Iztueta



KALE.

Bentapeligrorra doan bidean, petrila, bi lekutan behintzat oso arriskutsu dago. Petrila puskatuta dago etxe berrietatik gertu eta harrizko eserlekuetako batek bizkarraldea ere falta du.



KALE.

San Joango ermita aurrealdeak aspaldian aparkalekua dirudi. Ez da denbora asko lurra bertutu zutela eta martxa honetan berriro ere laster da puskatuta!



BALE.

Iraetako frontoiari teilatu berria egin diote. Lehengoa zahartzen hasia zegoen. Frontoi berria dirudi!



KALE.

Lizarraitz baserri ondoan dauden zabor ontziak ez dituzte husten. Jendeak gaizki aparkatzen du eta zaborren kamioiak ezin dituzte maniobrarik egin. Ezin al zen gainezka egin aurretik neurririk hartu?

Nora goaz?



EINTZUK

dira gure gizarte hau oinarritu behar den balore horiek? Ideologiatik kanpo izan behar ditugun balore horiek? Botere eta izen onaren gainetik izan behar ditugun balore horiek? Zein izango da gure ondorengoei utzi behar diegun gizartearen oinarria? Non geratzen da hainbeste borrokatu eta hildako eragin eta eragiten dituen berdintasunerako gizarte hori, eskubide berdinetan oinarritu beharko litzatekeen gizarte hori? Nola ulertu daiteke erasotzaileekin bat egitea, erasorik ez dela izan aitzakiarekin, ez dela hainbesterako izan aitzakiarekin? Zertan ari gara erortzen? Zer egiten ari gara gaizki? Non dago guzti horren gako: eskolan, familian, administrazioan, ...? Badirudi horrelakoak gertatzen direnean errazena egiteko joera dugula, hots, beste alde batera begiratu eta ezer ez gertatuko balitz bezala jarraitu. Baina ez da egia, gertatu egin da eta gure eskuetan dago berriz ez gertatzea. Gizarteak eta gizarte horretako partaide orok garbi esan behar dugu horrelakorik ez dugula onartuko, horrelako ekintzek gizartearen oinarriak kolokan jartzen dituela, gizarte bera usteltzeko bidean jartzen duela. Ez zaigu iruditu isilean utzi behar genuenik, eta horrekin batera salatzen kemena izan duenarekin bat egiten dugu.

Jardunian Jesus Jegiguren

EAĒKO PSE~ĒĒKO PRESIDENTEA
AGIÑA BASERRIA, AIZARNA, 1954

“**A**izarnan bizi izan zen Pepe Villar izena zuen gizon bat, guk Don Pepe esaten genion...

akordatzen naiz hura hil zenean, artean Aizarnan autorik apenas zegoen, hiletara automobil mordoa nola etorri zen, dena beteta”. Bera hasi da guk galdetu gabe Aizarnako historiako xehetasunak ematen, *La academia herrante*

intelektual taldea han biltzen zenekoak-eta... Motorra berotua zuela iritzita berari buruz galdezka hasi eta hara zer bota digun: “Nik ez dizuet ezer asko esango, lotsa ematen dit-eta nire bizitza kontatzeak”. Baina pixkanaka-pixkanaka hasi da kontu-kontari eta uste ez genituenak ere esan dizkigu. Bukaeran berriz heldu dio historiari eta Pio Barojari buruz hasi da, Zestoan hari eskainitako museoa beharko genukeela komentatu digu.

AGIÑAKO HAMAR ANAI-ARREBETAN GAZTEENA. BASERRIKO LANETAN LAGUNDU AL ZENUEN?

Beste edozein baserriko mutilkoskorrek bezala, tokatzen zena egin behar izaten nuen. Beharbada, nola gazteena nintzen, ez nuen beste anaiek adina egin. Baina baserrian beti izaten da lana denentzat, eta beharko egin: behiak zaindu, ganadu-jatekoak, azpiak atera, sororan, belarra ondu udaran...

GUSTURA EGITEN AL ZENITUEN LAN HORIEK?

Niri ez zait gehiegi gustatzen baserriko lana. Gogorra zen garai hartan eta gaur egun ere gogorra izango da,

nahiz eta zenbait abantaila izango duten orain.

ETXEKO GAZTEENA BABESTUENA IZAN OHI DA KALEAN. BASERRIAN ERE BAI, EZTA?

Hori esaten dute, seguru asko hala izango da.

BESTE SEME-ALABEK BEZALA, ZUK OFIZIOREN BAT IKASTEKA NAHI OMEN ZUEN AITAK. ANAI-ARREBETAN BABESTUTA SEGI ZENUEN IKASKETEKIN.

Orduan jende gehiena 13-14 urterekin eskola utzi eta lanean hasten zen, ofizioa ikasten. Eta niri ere hori tokatzen zitzaidan. Eta hasi ere hala hasi nintzen eskola bukatu eta lanean. Baina garai hartan hasi zen Azpeitian institutua eta zergatik neu ere oso ondo akordatzen ez naizen arren han segitu nuen, batik bat, ikastea gustatzen zitzaidalako.

ESTUDIANTE ONA AL ZINEN?

Neuk esatea ez dago ondo baina us-te dut ikasle ona nintzela, bai. Hala ere Aizarnan bertan ni baino hobeak egongo ziren makina bat, ez dut inoiz egundoko notarik izan, baina interesa behintzat banuen.

AIZARNAKO ESKOLA GARAIAN ZER GOGORATZEN DUZU?

Eskolan adin guztietakoak nahastuta ginen, behean mutilkoskorrek eta goian neskak. Kintoak hamarren bat-edo izango ginen. Irakasleak kanpotarrak izaten genituen. Ez ziren oso-oso gogorrak izaten, ez dut behintzat oroitzen bereziki txarrik. Garai hartan gauzak beste modu batera ziren, hori bai; orain arraroa emango du baina orduan zeozer gaizki eginez gero eskua jarri behar eta reglarekin zapa!

“**Klandestinitatean bizi izan naiz beti**”

ERDARAZ BA AL ZENEKIEN ORDUAN?

Eskolan hasi nintzenez ez, jakina. Etxean beti euskaraz eta Aizarnan ez zen besterik aditzen. Eskolan hasiko ginen erdaraz.

EGURRA 'BEHAR IZAN' AL ZENUTEN IKASTEKO?

Nik uste dut, horregatik, ezetz. Ez dut oroitzen behintzat. Ez zuten euskaraz egiten uzten baina eraztun-konturik eta ez dut oroitzen. Errieta bai baina hori ere neurrian; gu behin ere ez ginen iritsi elkarrekin erdaraz egitera, ezta eskolan ere. Lagunekin beti euskaraz.

ZER JOLAS ZENITUZTEN?

Jolasa, bakarra: pelotan herriko plazan. Ez nintzen oso ona, behin ere ez naiz izan kurioa kirolerako.

ETA ESKOLATIK KANPOKO ORDUAK ZERTAN EMATEN ZENITUZTEN?

Ba mutilkoskorren betiko kontuak, errekarra joan eta arrantzuan, eskuekin hori bai, kainaberarik eta horrelakorik ez genuen guk, txori habi bila eta horrela (kar, kar, kar...). Gaur ere horrela izango dira gutxi gorabehera, ezta?

UME GARAIKO OROITZAPEN ONA AL DUZU?

{Denbora hartzen du pentsatzeko}
Ez daukat oroitzapen txarririk, baina benera, gehiegi ere ez dut idealizatuko. Nik uste dut oraingo mutilkoskorrek hobeto bizi direla.

URTAINEN GARAIA, UDAKO KANPO-TARRAK... HARRAPATU AL ZENUEN HERRI DENA?

Bai, klaro. Zestoara, hala ere, festetan eta enkargutan baino ez ginen joaten.

OINEZ JOATEN AL ZINEN?

Beti. Nola joango ginen ba bestelak! Galtzadatik joaten ginen, mundu guztia hortik ibiltzen zen. Zestoan batik



bat enkarguak egiten ziren. Baserritarrak produktuak Azpeitian azokan saltzen zituen. Nik esan dudana bidetik Bainuetxeko estaziora joan, trena hartu eta Azpeitira. Niri tokatu zait garai hartan egiten zen guztia egitea: astoarekin Zestoara joan enkarguak egitera, Azpeitira saltzera... Orain Hego Amerikako erreportajetan azaltzen diren bezala, trena oiloekin eta konejuekin-eta beteta, ba horrelaxe.

AZPEITIKO BIDEA ONDO IKASI ZENUEN, HAN SEGI ZENUEN IKASTEN.

Hamalau-hamabost urterekin bizitza gehiago egin nuen Azpeitian Zestoan baino. Institutura joan nintzen eta batxilerra bukatu arte hantxe. Gero, ez nekien garbi zer egin. COU egitera Donostiara etorri nintzen eta garai hartan nik uste dut fakultate publiko bakarra Zuzenbidea zela.

ELIMINAZIOZ IKASI ZENUEN ZUZENBIDEA, BERAZ?

El que puede puede y el que no puede a Derecho esaten zen orduan. Ez zegoela oraingo aukerarik, alegia. Baina gustatzen zitzaidan. Hala ere, aukera eduki banu historia, literatura, edo beste zerbait ikasiko nuen beharbada.

ETXEKOEK ASKO LAGUNDU AL ZIZUTEN?

Etxean ez zegoen niri laguntzeko aukera handirik. Ez dut esango ez zidatela lagunduko behar izan banu, baina neuk ere ez nuen gehiegi eskatu. Estudiante denbora guz-





tian lanean jardun izan naiz. Diren lan guztiak probatu ditut: euskarako irakaslea, gasolinerako langilea, Parisera eta Genevara (Suitza) ere joan nintzen udara batzuetan lanera...

SOSAK ATERATZERA ETA FRANTSESA IKASTERA?

Bai, eta abentura bila. Orain baino gehiago egiten ziren horrelakoak garai hartan.

PARISEN HARRAPATUKO ZENUEN 68KO ONDORENA...

Ez genuen Parisen ezer asko ikusi, lana egiten genuen 8-9 ordu egunean; aireportuan, maletak autobusean sartzen. Gero Genevan ere izan nintzen, kozinero.

BAINA BA AL ZENEKIEN BA SUKALDEAN?

Mokofinentzako lanak egiten ez nintzen ibili! Genevan Lemana aintzira dago eta bertakoa bezala saltzen zuten arrain bat prestatzen nuen, pare bat buelta eman eta kito, gainera arrain hura Kanadatik ekartzen zuten.

PARIS BESTE MUNDU BAT IZANGO ZEN...

Ba ez, ez. Aizarnatik Azpeitira joatea bezala zen, Parisera joan eta hemengo jendearekin ibiltzen ginen. Ez ginen nahasten frantsesekin.

ORDURAKO GRINA POLITIKORIK BA AL ZENUEN?

Garai hartan politikarako ardura orain baino askoz gazteago etortzen zen. Ni ez nintzen arrazoi politikoen-gatik joan, diruagatik eta abenturagatik baizik, baina ideia batzuk banituen ordurako. Parisen denetik zegoen, hemen baino gehiago, troskistak, maoistak... karta oso zabala zen. Ni Bandera Roja-ko jendearekin elkartu nintzen. Alderdi komunista zen, PCko banaketa uste dut zela, batik batik Katalunian zegoena. Orduan oso inportantea zen.

MUGIMENDU PIXKA BAT BAZEN ORDUAN PARISEN...

Beno, bueltatu nintzenez, hemen ez zegoen Bandera Rojarik, eta Alderdi Komunistan sartu nintzen. Beti izan naiz... nola esplikatu dut ba... pragmatikoa edo eszeptikoa. Behin ere ez zait gustatu ideologia erradikala, nahiz eta orain ematen duen Alderdi Komunista ezker muturrean dagoela, garai hartan komunista izan zitekeen moderatuena zen.

KAR, KAR, KAR...

Bai ba; FRAP, ETA, troskistak, maoistak... komunistak ezkerreko eskubia ginen! Garai hartan PSOE ez genuen eza-gutzen.

PCTIK PSOERA NOIZ ALDATU ZI-NEN?

Frankismoaren azkeneko urtetan alderdi komunistak inportanteak ziren printzipio batzuk baztertu zituen, proletalgoaren diktadura eta horiek... Alderdi komunista eta sozialismo demokratikoa apartatuta egoteak niretzat ez zeukan zentzurik. Koherentziaz PSOEra sartu nintzen. Garai hartan komunistak gehiago ziren sozialistak baino.

MAOISTEKIN, TROSKISTEKIN... JENDE HORREKIN IZAN AL ZENUEN HARREMANIK?

Batik bat fakultatean. Baina ez naiz behin ere izan ez abertzalea, ez nazionalista, ez ezker muturrekoa... "Españolista", erreformista izan naiz erremediorik gabe. Beno, espainolistarena esateko modu bat da. Lehen hala esaten zitzaigun. Esan nahi nuke, adibidez, ezagutzen dudala jende asko ni alderdi komunistan nengoenen ETAKoak zirenak eta gaur egun PPn daudenak, esku-bian daudenak. Jende asko aldatu egin da, orain inor ez da ezker muturrekoa, troskista batzuk geratzen dira, baina maoistak, Partido del Trabajo, RT... horietakorik ez da gelditzen. Horietako askok uste dut eskubitik pasa nautela eta ni beti gutxi gorabehera toki berean egon naiz.

DENA DELA, ORDUAN NAHIZ ETA DIFERENTZIA INPORTANTEAK EDUKI ETA ZU ABERTZALE EZ SENTITU, IGUAL GEHIAGO ZEN BATZEN ZINTUZTENA BANATZEN ZINTUZTENA BAINO.

Diferentzia hori batik bat gero sortutakoa da, abertzaleak bai eta abertzaleak ez... Esate baterako, garai hartan autodeterminazioa defendatzen zutenak gu ginen eta defendatzen ez zutenak ETAREN inguruan zebiltzanak. Orduan autodeterminazioa defendatzea ia-ia Euskadi



JESUS EGIGUREN IKASLE GARAIAN

traizionatzea zen. Autodeterminazioa marxisten errebindikazioa zen, errebindikazio 'españolista' ETAkoentzat. Autodeterminazioa defendatzen zuten troskistek, maoistek... eta beste denek independentziaren alde egiten zuten.

DENAK ALDATU ZARETE ORDUAN.

Guk autodeterminazioa utzi dugu eta besteek hartu dute.

ALDERDI KOMUNISTAREKIN HARREMANETAN HASI ETA PIXKANAKA SARTU ZINEN POLITIKAN ALA BURU-BELARRI?

Buru-belarri. Fakultatean nenbilela Donostiako Alderdi Komunistako gazteen taldeko arduradun izan nintzen. Frankismoaren azkeneko urtetan.

DENA KLANDESTINITATEAN. ARRISKURIK PASA AL ZENUTEN?

Nire bizitza klandestinoa izan da dena. Klandestinitate batetik beste klandestinitate batera pasa naiz.

URTEREN BATZUK LASAI BIZI IZAN AL ZENITUEN?

Ai!, lasai-lasaiak ez. Dena dela gerora sortu eta hazi da diferentzia hori, gaur dagoen hesi hori. Frankismoaren azkeneko urteak ez ziren hain gogorak izan. Beharbada ETAkoek okerrago pasako zuten, baina komunista edo sozialista izanda, gutxi gorabehera erregimena konturatuta zegoen alderdi horiek laster legalak izango zirela. Hortik irten eta segituan berriz ere ia-ia klandestinitatera. Akordatzen naiz nola 1980an, Urretxura joan behar izan nuen, hil zuten PSOEko aurreneko afiliatuaren (German Gonzalez zumaiarra) gorpua identifikatzera.

ORDUAN EMAN AL ZEN SALTOA?

Orain PSOEkoa edo PPkoa bazara kontuz ibili beharra daukazu, orduan ez genuen horrela ikusten, hainbeste ez. Dena dela, ez da erraza izan politika niretzat. Aitak esaten zuen bezala ofizioa ikasi banu, hobeto. Lasaiago biziko nintzateke.

EDUKI DUZU AUKERA, ZERGATIK EZ DUZU UTZI? BURUTIK PASA AL ZAIZU?

Ez. Adin honetan honezkero mila konpromiso daukazu. Nire bokazioa Zuzenbideko fakultatean irakasle izatea zen. Eta politika aukeratu dut, dudarik gabe, konpromiso bezala, baina ez zen nire asmoa politika ofizio izatea.

KONPROMISOA ZEREKIN?

Idea batzuekin. Gainera, orain bizi dugun egoerarekin, ez daukazu uzterik politika, eutsi egin behar duzu.

HEMEZORTZI URTE EGITERAKO ATERA ZINEN. ZENBATERAINO MANTENDU DUZU HARREMANA AIZARNAREKIN?

Beti joan izan naiz Aizarnara, garai batean as-tero. Baina ama hil zen, eta gero aita. Gurasoen

ELKARREKIN GALTZAAN GORA

Aspaldian ez diat hire berri zuzenik, baina elkarrekin izandako bizibide eta harremana gogoan diat eta hori beti horrela izango duk, bizi naizen artean.

Elkarrekin joan gintuan Azpeitira batxilergoa ikastera. Elkarrekin etorri izan gintuan bost urtez, egunero-egunero, Xardoren taxian. Eta azkeneko urtean ere elkarrekin egiten genian etxerakoa. Urola trenean bainuetxeko geltokiraino eta ttipi-ttapa, oinez gero, Akuan barrena *galtzaa* zaharrean gora. Biok Aizarnara; hi Agiñara eta ni Kantoikora. Elkarrekin joan gintuan Donostiara ikastera, han banatu zituan gure bideak baina elkarrekin emandako pausoak ez zituan alferrikakoak izan.

Egunkarietan maiz ikusten haut. Behin galdera bati erantzunez-edo esaten huen hire jarrera edo karakterrari buruz *perseverantea* haizela, eta pentsatu nian *¡joño!*, ba horretan arrazoi dik; setatia haiz heure arrazoiak defendatzerakoan. Horregatik iritsi duk Aizarnako Agiña baserriko benjamina, Elkarte Autonomoko Alderdi Sozialistako Lehendakartzara. Hala ere, gustatuko litzaidakek zazpi herrialdetako Alderdi Sozialistako Lehendakari izango bahintz lehenbailehen. Beste oilar batek joko liguke kukurruku euskaldunoi.

Bitartean eta zorterik onena opaz utzi iezadak Xenpelarrekin batera eskatzen, "hator gure kalera, baserritar legera, musika hoiek utzita,..Σ.", zenbat eta lehenago bakean utzi (hik eta nik ezagutzen ditugun horiek) orduan eta hobeto izango duk eta.

Guk antolatu behar diagu gure bizitza eta gure etorkizuna, nahi dugun edo ondoen iruditzen zaigun eran, nahi dugunarekin eta nahi dugun bezalako elkartasun edo elkarlanean.

Orain, hori bai e,

GORA AIZARNA ASKATUTA eta GORA AIZARNARRAK!!

TOMAS ARRIZABALAGA



ZUTIK, ESKUINETIK HASIA BIGARRENA DA TOMAS, OKERKA DAGOENA. JESUS BERRIZ EZKERRETIK HASIA BOSGARRENA DA, IRAKASLEAREN ONDOKOA

Tomas Arrizabalaga (1956-III-23). Lasaoko Lar baserrian jaio zen baina hamabost urteak arte Aizarnan hazitakoa da. Batxilergoa egin ostean Zuzenbidea ikasten hasi zen. Gero ordea ikasketak utzi eta *Egin* egunkariako pertsonal arduradun aritu zen lanean. Gaur ardura horixe bera du *Garan*. Zortzi urtez HBko zinegotzi izan da Lasarten.



etxea falta da, anai-arrebek beren fami-
liak dauzkate eta gutxiago joaten naiz.

**ZER DIOTE AIZARNARREK ZURE LANBI-
DEAZ?**

Harreman gehiegi ez dut izan, oso lo-
tsatia naiz, jende askoren ondoan ibil-
tzekoa ez naiz behin ere izan. Pixka bat
bakartu egin naiz, baina ez da izan arra-
zoi politikoengatik, nire izateko modua-
ngatik baizik.

**EZAGUTZEN ZAITUZTEN AIZARNARREK
ZER DIOTE, ORDEA?**

Ikusten nautenean ez dut uste politi-
karia ikusten dutenik, beren laguna bai-
zik.

**ZUEK BIZI IZAN DUZUEN EGOERAK ETA
BIZI DUZUENAK NORBERAREN BIZITZA
GOITIK BEHERA BALDINTZATZEN DU. AI-
ZARNARA JOATEKO ERAGOZPENA IZAN AL
DA?**

Pixka bat bai, baina ez gehiegi. Jende-
ak igual pentsatuko du eragin handia
daukala. Egia esan, pixkanaka-pixkanaka
neurri batzuk hartzen zoaz, baina ez
arriskua dagoelako, ohitura batzuk bar-
neratzen dituzulako baizik. Beti joan
izan naiz Aizarnara eta orain ere Aizar-
nako kontsideratzen naiz.

**ZURE BURUA HALA AURKEZTEN AL
DUZU?**

Horixe. Zer esango dut ba? Aizarna-
koa!

**ZERGATIK DAGO IDEOLOGIKOKI ZU
BEZALAKO HAIN JENDE GUTXI AIZARNAN
EDO ZESTOAN? ZERGATIK DIRA ETORKI-
NAK GUTXI HORIETAKO GEHIEN-GEHI-
NAK?**

Arrazoi soziologikoengatik. PPkoa ere
jende gehiago egongo da...

HORIEK ERE RARA AVIS DIRA.

Hainbeste aldiz egin didate galdera
hori... eta nik ez diot sekula zentzu
gehiagirik ikusi. Ni ez naiz sozialista edo
komunista egin inguruko jendea komu-
nista edo sozialista zelako. Eboluzio per-
sonalagatik izan da. Horregatik, Aizar-
nako izan edo Berlinekoa izan berdin-
tsu da inguruak baldintzatu ez baldin
bazaitu. Ni sartu nintzen garaian apenas
zegoen sozialistarik hemen inguruan,
Odon Elorza eta beste lauzpabost.

**ZER PENTSATURIK EZ AL DU EMATEN
NORBERAREN SORLEKUAN OSO-OSO GU-**

TXIK PENTSATZEA NORBERAK BEZALA?

Keba.

ZU EUSKALDUNA ZARA, EUSKALTZALEA ERE BAI?

Bai.

ETA ZUEN ALDERDIA?

Aukera politiko bat hartzean zenbaitentzat inportan-
tea izango da zer iritzi duen alderdi horrek euskarari
edo euskal kulturari buruz; nire kezka beste batzuk zi-
ren... Garai hartan ezkerrekoa izateak zentzua zuen.
Gaur eskuina eta ezkerria zer den mahai gainean dagoen
eztabaida da, baina garai hartan ez. Beste arrazoi ba-
tzuen arabera egiten zen aukera politiko. Uste dut eus-
kaldun jende gehiago ginela ezkerreko alderdi 'espaino-
letan', alderdi abertzalean baino. Gerora ezkerreko al-
derdi horiek desagertu egin dira; *Movimiento Comunista*,
Partido del Trabajo... esan nahi dut, garai hartan ez zela
hain arraroa Aizarnako izan eta alderdi ez nazionalista
batean egotea. Seguru asko Zestoan bertan MCEko mi-
litanteak inportanteagoak ziren ETakoak baino.

**EUSKARAREN AURREAN BESTE LEHENTASUN BATZUK
ZENITUEN ORDUAN... ETA GAUR EGUN NOLA BIDERATZEN
DUZU EUSKARAREKIKO KEZKA, EUSKALTZALEA BALDIN
BAZARA?**

Nik uste dut gaur egun Euskadik badituela tresna
guztiak euskara eta bere kultura defendatzeko eta lan-
tzeko. Garai batean euskaltzale izatea obligazioa zen,
euskara, orduan esaten zen bezala, kinka larrian zegoe-
lako, baina gaur egun badu gobernua bere defentsara-
ko... Nik ez dut sentitzen obligazio pertsonalik mundu
horretan militatzeko. Interesatzen zait gustatu egiten
zaidalako, baina ez arrazoi politikoengatik.

**ETA EZ AL DUZU SENTITZEN BEHARRIK, ZURE JARDUN-
BIDE POLITIKOAN IRITZI ARTIKULU BAT IDAZTEKO OR-
DUAN EDO PARLAMENTUAN HITZA HARTZERAKOAN, EUS-
KARAZ EGITEKO?**

Gure belaunaldiko jendearentzat gauza bat da euska-
raz hitz egitea eta irakurtzea, eta beste gauza bat da
euskaraz idaztea. Eskolan behin ere ez dugu euskararik
ikasi. Euskara ikasi dugu etxean, kalean, eta, gero, be-
harbada, liburutan. Nik behintzat ez daukat erraztasu-
nik euskaraz idazteko.

**BESTE KONTUETAN ZURE BURUA JANTZI DUZUN MO-
DUAN ZERGATIK EZ TREBATU EUSKARAZ IDAZTEN?**

Badago beste jende asko euskaraz idazten duena,
zertarako nik? Erdaraz eta kito.

HORI ERE PRAGMATISMOA DA, EDO ZER DA HORI?

Nik uste dut gure belaunaldiak ohitura hori gaztetan
ez hartu izanagatik gertatzen dela hori. Orain euskaraz
idazten hastea pixka bat artifiziala litzateke.

SEME-ALABARIK BA AL DUZU?

Bai.

ETA BERAIEK?

Hiru dauzkat eta hirurek euskaraz hitz egiten dute.
Nirekin ere euskaraz egiten dute, jakina. *Hi, ni Aizarna-
koa nauk, e!*

euskal herriko gatazkaz

ETAk su-etena iragarri zuen egunetik elkarrizketarik eman gabe zegoen Egiguren. Elkarrizketarik eskaintzen ez duen arren bere izena prentsan egunero ateratzen da bake prozesuari lotuta. Denek nahi berekin eta berak gu bakarrik aukeratu gaitu. Eta esan digu Aittolazarren daudela prozesuaren aurrekariak, makina bat aldiz egin omen zituzten han baba-janak, 'sukalde lanean' ari zirela. Baina su-etena utzi du ETAk, eta Aittolan mahaikide zuena kartzelan sartu dute. Ezin duela sinetsi, lur jota dagoela eta etorkizunaz pesimista dela esan digu.



Frakasatua sentitzen naiz”

**Komuni-
kabideek
diotena da
zu erdi-er-
dian egon**

zarella gauzak konpontzeko ahaleginean. Dena zeharo okertu den honetan, nola sentitzen zara?

Pertsona bezala frakasatua sentitzen naiz. Nik uste dut nire belaunaldiko edozein politikok ikuste-ko falta duen bakarra dela bakea Euskadin. Ikusi du dena, frankismoa erortzen, autonomia erdiestea, gero Alderdi Sozialista irabazten, gero PP lekukoa hartzen... Bakar-bakarrik bizitzan falta zaiguna da bakea ikustea.

Nik itsu-itsu sinesten nuen oraingo honetan benetan zihoala. Gauza okertu egin da eta zentzu horretan izugarritzko frustrazioa sentitzen dut. Eta ezin dut ia sinestu honek hain gaizki bukatu behar zuenik, baina...

ERABAT ETSITA ZAUDE EDO ORAINDIK LANEAN JARRAITU BEHAR DUZU?

Ez, etsita behin ere ez, baina... uste dut egundoko aukera zegoela gauzak ondo bukatzeko bai ezker abertzalearentzat bai abertzale ez garenontzat... enfin, konpromiso plural bat lortzeko posibilitatea zegoela eta konpromiso horren barruan ETArekin inguruan egon den jendea gizarteratzeko aukera ere bazegoela. Aukera hau galtzen baldin bada beharbada etorriko da besteren bat, baina baten batek pentsatzen badu nahiz eta oportunitate hau galdu bi urte barru ahal izango dela, nik uste dut oso deskuidatuta dagoela. Espainiako politikaren eboluzioa, Europakoa, terrorismo islamiarra... horiek denek hemendik aurrera oso zail egingo dute hemengo arazoa elkarrizketaren bidez konpontzea oportunitate hau galtzen bada.

ZUK EGIN ZENITUEN ADIERAZPEN BATZUK GATAZKAZ LEHENALDIAN HITZ EGINEZ, IRAGANEKO GAUZA BALITZ BEZALA.

Bai, nik uste nuen oraingoa benetakoa zela. Eta neure arrazoiak neuzkan, jakina, hori pentsatzeko.

ORAIN, ORDEA, EZ ZARA LEHENALDIAN HITZ EGITEN ARI, EZ ZARA OPORTUNITATEAZ IRAGANEKO ZERBAIT BALITZ BEZALA ARI.

Su-etena apurtu da, elkarrizketa ere bai. Baina oraindik ikusi egin behar da zer gertatzen den. Nik iritzi oso pesimista dut, dena dela.

ZURE HELBURU NAGUSIA GAUZAK HITZ EGINEZ KONPONTZEA AL LITZATEKE?

Bai.

ZERBAIT ERANTSI NAHI AL DUZU?

Urtebete nago elkarrizketarik eman gabe. Azkenekoa tregua eman zen egunean izan zen, *El Diario Vascon*. Eta harrezkero ez dut hitz egin mundu guztiak gauza beraren gainean galdetzen didan arren. Eta nola ez daukadan kontatzerik zer pasa den eta zer ez den pasa...

BESTE BATZUK KONTATU DITUZTE.

Bai, baina... esate baterako gaur (2007-06-17) bertan ikusi dut *El Mondon* orain hamabost egun ez dakit zein diplomatiko ETArekin egon zela eta... dena gezurra da. Su-etenen honen aurrekariak, asko, Aittolazarren daude. Zestoako partean dago hori, ezta?

AZKOITIA DELA USTE DUGU...

Zestoa zela uste nuen nik, baina mugan behintzat... irakurriko zenuten nola 'hau' Otegi eta nire artean hasi zen Elgoibarko baserri batean eta abar... Ba baserri hori Aittolazar inguruan dago. Nekazaritza ekologikoa egiten duen baserri bat da, Txillarre du izena. Eta hortik joaten ginen askotan babak bazkaltzera Aittolazarrerera, bertan dagoelako.

BIOK MANO-MANO?

Denok hor ibiltzen ginen, han nola ez zen inor izaten gure bila (kar, kar, kar). Horregatik joaten naiz orain sarri Aittolara, ohitura bihurtu zelako. Barojaren ipuin ezagunenetakoa batean joaten da mediku bezala hara eta...

Jon artano, onintza irureta

“Asko begiratu arren, ez na TXOLARTE. ATZEGIREN BARRUAN AISIALDIRA ZUZEND

Txolarte 1972an sortu zen, aisialdi arloan ga-bezia nabari zelako. Adimen urriko pertsonak lan eta eskola orduetatik kanpo etxean gelditzeko ohitura zuten. Hutsune hori betetzeko aisialdirako zerbait prestatu beharra zegoelako sortu zen taldea.

HELBURUAK:



Giza integrazioa: aniztasuna errealitate bat da, eta hori errespetatu beharra dago.

Adimen urriko pertsonak, pertsona oso bezala ikustea.

Aisialdi ekimen eta jarduerekin, adimen urriko pertsonen gaitasun fisikoak eta mentalak lantzea.

Azpeitiko taldea izan arren, badira lanean dabilzan gure herritarrak ere, eta beraiengana jo dugu Txolarte hobeto ezagutu asmoz.

Esti Zabala, Itziar Larrañaga, Eneritz Urbieta eta Gurutze Lopetegi.

Nolatan hasi zineten Txolarten lanean?

Esti Zabala. Ni lagun batek esan zidalako. Beno, nik berez nahi nuen horrelako zerbaitetan sartu, baina ez nekien Azpeitian horrelakorik zegoenik ere. Lagun horrek aipatu zidan han zebilela, eta halaxe, egun batean hara joan nintzen zer zen jakitera. Eta poliki-poliki bertan integratzen hasi nintzen...

Gurutze Lopetegi. Ba, ni Estik harrapatu ninduen. Behin kalean topo egin, argibideak eman zizkidan, eta interesatu egin nintzen. Gero, begirale falta zutela eta, animatu egin nintzen. Beno, bakarrik baino nahiago norbaitekin hastea eta Ainitze konbentzitu nuen.

Eneritz Urbieta. Pentsatu genuen lehenengo egunean

ikusiko genuela zer zen eta gero, ba, erabakiko genuela. Eta han jarraitzen dugu.

Itziar Larrañaga. Ni aurtengo ikasturte hasieran hasi nintzen. Ikusten nuen zestoarrak ere bazebiltzala Txolarten eta egun batean bertara joan eta konturatu nintzen oso gustura sentitzen nintzela haiekin eta oso giro polita zegoela.

Zer da zuentzat, lana, aisialdia betetzeko modu bat? Badauka zuen ikasketekin nolabaiteko loturarik?

I. L. Aisialdia da azkenean, ez gara langileak eta ez gara profesionalak. Jakina, borondatezko zeregina da.

E. Z. Nire kasuan bai, badu lotura nire ikasketekin, baina borondatezko lana, e! Hezkuntza berezia ikasi dut eta aisialdiarekin lotutako zerbait egitekotan, ba, lotura izatea nahi nuen.

G. L. Nik gizarte hezkuntza ikasi dut eta badauka lotura, baina ez zuzena. Niretzat denbora libre bizitzeko beste modu bat da, eta askotan beraiek baino hobeto geuk pasatzen dugu.

E. U. Nire ikasketekin ere ez dago zuzenean lotuta, Lehen hezkuntza egin baitut. Eta hemen hemezortzi urtetik gorako jendearekin elkartzeko gara. Bestelako gauza bat da, baina aberasgarria.

Gaur egun jendeak diruagatik egiten du lana eta askotan baita horrelako ekimenak ere: aisialdia dela, elkartasuna dela...zer iritzi duzue horren inguruan?

E. Z. Nik ondo ikusten dut aisialdia borondatezkoa izatea. Soldata bat jarriko balitz mundu guztia apuntatuko litzateke, eta jendea orduari begira jarriko litzateke eta nire ustez, barrutik irten behar zaizun kontu bat da.

E. U. Egia da, baita ere, borondate kontua krisian dagoela.

G. L. Nire ustez begiraleon artean dagoen giro onik ez legoke pagatuta balitz. Boluntarioa da, ahal dugunean joaten gara, nik ezin badut bestea joango da, elkarriz txandak aldatzen dizkiogu... baina egia da monitorea falta izu-

uzu ikusten”

UTAKO TALDEA

garria dagoela. Hori esaten digute Atze-
gin. Urtero pasatzen dituzte unibertsita-
teak eta eskolak hitzaldiak emanez. Az-
ken finean, lotura duelako, curriculume-
rako balio dizulako eta abar, eta hala
ere ezin lortu jendea. Adibidez, orain
udan hamabost eguneko oporrak egite-
ko zertxobait ordaindu egiten zaie begi-
ralei. Aurten Tarragonara bidaliko gai-
tuzte. Abuztuaren lehenengo hamabos-
taldian tokatzen zaigu guri jeneralean.
Larunbatekoak ateratzen dira, baina
udan jendeak oporrak nahi ditu edo la-
na egin behar du. Ikasleak gara eta uda
aprobetxatzen dugu, ahal den lanik
gehiena egin eta dirua irabazteko.

Zer egiten duzue larunbatetan?

E. U. Ba, hiru hilabete lehenagotik
programa prestatzen dugu. Larunbatero
hainbat ekintza egiten ditugu. Eskula-
nak egin, Zumaira joan paseatzera,
inauterietan mozorrotu, Loiolara joan
txokolatea eta txurroak jatera... Gehie-
netan, aktibitateen bat egin eta kalera
joaten gara pote batzuk hartzera; be-
raiek ere beste edozein bezala ibili nahi
dute.

G. L. Gure lema nagusia integrazioa
da. Larunbat arratsaldetan koadrilan el-
kartzen garenean kalera atera eta pote
batzuk hartzera joaten gara, ezta? Eta
beraiek zergatik ez? Jeneralean talde
handia elkartzen gara eta tabernan de-
nak batera sekulako eskandalua izaten
da, baina badaude hiru edo lau taberna,
oso-oso integratuta sentitzen direnak.
Bertako kamareroarekin, jendearekin...
koadrilan egiten ditugun planak beraie-
kin egitea lortu nahi dugu.

I. L. Eta beraiei gehien gustatzen
zaiena da poteatzea eta jatea. Orduan
beti kristoren merienda egin eta gero
kalera joaten gara

Aurtengo Atzegiren leloa: ‘Asko begiratu arren ez nauzu ikusten’ Zer esan nahi du?

E. Z. Ba, asko begiratzen diezu, bai-
na ez duzu beraien barrua ikusten.

G. L. Lau pertsonatik bat berezia
baldin bada, seguru lehenengo aten-
tzioa hark emango dizula eta mila aldiz

begiratuko diozu, baina inoiz ez zara inte-
resatuko zer egiten duen, zer moduz dago-
en, zer lan egiten duen... pertsona normala
bezala ez duzu ikusten. Eta pertsona ho-
rrek, guk bezalaxe, ezaugarri positiboak di-
tu, gu bezala lanera joaten da, denbora li-
brea dauka... Ikusi egiten ditugu, baina ez

ditugu ezagutu nahi.

Lana egiten dute, orduan, gehienek. Badute koadrilarik?

E. Z. Tailerrera joaten dira gehienak, Gureak-era Az-
koitira. Eta ezintasun handia dutenak eguneko zentro-
tara joaten dira. Han, eguneroko bizitza normala egiten
saiatzen dira; gosaldur, erosketak egin...

I. L. Gehientzat Txolarte da beraien koadrila. Ba-
daude batzuk beraien koadrila dutenak baina gutxi dira.

Zer ematen dizue zuei Txolartek?

G. L. Ni pertsonago sentitzen naiz. Guk gure artean
aurreiritzi pila dauzkagu, eta haiekin arratsalde bat ego-
ten zarenean deskonektatu egiten duzu. Horren mundu
perfektuan bizi dira, inguruko arazo denak ahaztuta! Eta
egunero lanera joan behar dute eta kobratzen duten di-
rue gure laurdenera ere ez da iristen, baina daukaten gu-
txirekin ze *felixiano* diren!

E. U. Guk baloratzen ez dakigun gauzeekin beraiek
disfrutatuta egiten dute. Trago bat hartzea, dantza egi-
tea... Eta, baita ere, konturatu gara hara joaten garenetik
kariñosoago garelara. Haiei besarkada ematea oso erraz
ateratzen zaizu. Beste pertsona batzuekin ez zara hain
erraz askatzen.

E. Z. Niretzat eskape bat bezala da. Bete egiten nau-
te, gustura nago eta ahaztu egiten ditut arazoak.

G. L. Jasotzeko ere bai eta emateko ere bai. Hain
maitagarriak dira, ba azkenean kutsatu egiten zaituzte.

E. Z. Gure alde ona ateratzen da. Askotan beste ba-
tzuekin adierazten ez duguna, ba, haiekin bai. Bestela
baino autentikoagoak gara.

E. U. Naturalagoak.

G. L. Gizarte honetan lau pareten artean gaude eta

hor sartu behar gara
bestearen berdina
izateko. Haiekin za-
ren bezalakoa zara.

Zer esan nahi diezue jendeari Txolartetik?

Ez da talde itxi
bat, irekita gaude
beti. Ikusi eta gusta-
tzen bazaizu ondo.
Bakoitzak ahal due-
na ematen du. Be-
raz, mundu guztia
egun batean hara

joatera gonbidatzen dugu. Jende asko pasa da Txolarte-
tik, batzuk geratzen dira beste batzuk ez... Ez dago
inongo konpromisorik... kuriositatea duenak, eta bere
burua gehiago ezagutu nahi duenak bisita gaitzala.

MARGARI EIZAGIRRE



etxerat

(Euskal errepresaliatu politikoekin)

ETXERAT 2001ean sortu zen, eta Zestoan ere urte berean eratu zen taldea. Etxerat, nazio mailako elkarte da. Aurretik elkarte horren funtzio bera betezen zuten bi elkarte zeuden Euskal Herrian: Senideak Hego Euskal Herrian, eta Gureak Ipar Euskal Herrian. Etxerat sortu aurretik, Senideak taldean hainbat zestoar ere baziren.



GAUZATUTAKO EKIMENAK

Etxeratek hauteskunderen aurretik, presoekin eskubideak onartzeko dekalogo bat prestatu zuen eta EA, EAJ eta EAE-ANV alderdietako hautagai guztiei pasa zien maila pertsonalean konpromisoak hartzeko. Dekalogo horretan, euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespen neurriekin (sakabanaketa, bizi osorako espetxe zigorrak...) amaitzeko eta presoak Euskal Herriratzeko konpromiso pertsonalak hartzerantz animatzen zituzten hautagai guztiak.

Dekalogo horretan, euskal presoekin oinarritzeko eskubideak bildu zituzten, honako hauek besteak beste: tratu duin eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea, hau da, tortura eta tratu txarrik ez izatea; isolamendurik ez eta ezta jipoirik ere; osasun eskubidea; komunikazio eskubidea, hau da, interbentziorik ez eta ezta murrizterik ere; euskaraz komunikatzeko ere askatasuna izatea, hizkuntza eskubidea; hezkuntza eskubidea; amatasun eta aitatasun eskubidea, hala nola, presoak ama izateko eskubidea izatea duintasun osoz, aitarekin komunikatzeko trabarik ez izatea eta espetxe barruan umeen bizitza kalitatearen errespetua; eta azkenik, Euskal Preso Politikoen Kolektibo gisa, Euskal Herrian eta elkarrekin bizitzeko eskubidea izatea.

Bestalde, Etxeratek hileko azken ostiral guztietan elkarretaratzea egin ohi



Etxerat elkartean herriko presoekin senideak eta lagunak elkartzen dira, eta tartean daude Zigor Plazaola eta Itziar Arrizabalaga. Horiek azaldu dutenez, guztira bost lagun edo elkartzen dira hamabostean behin ekimenak antolatu eta presoekin egoerari buruz hitz egiteko. Eskualde mailan ere biltzen dira, eta baita nazio mailan ere. Nazio mailan, urtean behin besterik ez dira biltzen eta ekitaldi horretan, urteko balorazioa egiten dute.

Etxerat apolitikoa dela azpimarratzen dute taldeko kideek: "Helburu nagusia presoekin alde lan egitea, presoekin bizi baldintza egokiak bermatzea eta jasaten dituzten eskubide urratzeak salatzea da". Azken finean, euskal preso politikoen eta iheslarien ahotsa izatea da Etxeraten zeregina.

senitaratekoak)

du herriko plazan, presoan oinarrizko eskubideak betetzea aldarrikatuz. Ordu erdiko ekimena izaten da eta herritar guztiei egiten diete deia ekimenean parte hartzeko, “horrelako ekimenak dira bide bakarra, espainiar gobernuari presioa egitea, euskal gizarteak salatu egin behar du euskal preso politikoen egoera, azken finean gatazkaren ondorio zuzenak besterik ez baitira”, azaldu dute Etxerateko kideek. Etxeetako leihoetako banderolak jartzea ere “oso garrantzitsua” dela diote Etxerateko kideek. Bide batez, herritar guztiei deia egin nahi izan diete banderolak, herriko tabernetan edo Potxolonean erosi eta beraien etxeetako leihoetan jartzeko.

JUAN MARI IGARATAUNDI HOGEI URTE ESPETXEAN
Juan Mari Igarataundi preso atxilotu eta espetxeratu zutenetik, hogeni urte bete ziren ekainaren 15ean. 2002an kondenaren hiru laurdenak bete zituen eta gaur egun noiz aterako den espetxetik ez dakite. Hogeni urte hauetan hainbat espetxe ezagutu ditu eta egoera gogorak eta jasanezinak bizi behar izan ditu bere etxetik milaka kilometrora. Bere emaztea, Itziar Arrizabalaga, ikusi gabe, berriz, hamaika urte pasatu zituen, emaztea ere berarekin batera atxilotu eta espetxeratu baitzuten.

Urteurrena aitzakia hartuta, hainbat ekimen antolatu zituen Zestoan Etxeratek Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren laguntzarekin. Ekimen horien helburua euskal presoek egunero jasaten dituzten oinarrizko eskubide urratzeen inguruan gizartea kontzientziaztea da.

Hori izan zen txandakako elkarretaratzea antolatze-ko arrazoietako bat. Ekimen horrekin, herriko koa-drilek eta lagun taldeek egoeraren berri izan eta konpromisoak hartzera animatu zituzten.

SAKABANAKETA: PRESIO BIDE GOGORRA

Euskal preso politikoen eskubidea da etxetik gertuen duten espetxean betetzea ezartzen zaien kondena, baina espainiar eta frantziar gobernuak indarrean duten politikak presoan nahiz senideen eta lagunaren eskubideak urratzen ditu etengabe.

Presoei, senideei eta lagunei presioa egiteko sistema da sakabanaketa eta presoei espetxe barruko baldintzak gutxi aldatzen zaizkien arren, psikologikoki presio itzela egiten die Euskal Herritik milaka kilometrora egoteak, astero bidean senide eta lagun ugari gelditzen baita. Gainera, sakabanaketaren bidez, eskubide asko urratzen dira: komunikazio eskubidea, osasun eskubidea eta hizkuntza eta hezkuntza eskubideak, besteak beste. Bestalde, 1996 arte, kondenatutako euskal preso politikoen, preso sozialek baino kondena gogorragoak zituzten. Zigorak betetzeko muga 30 urtekoa zen eta presoak zigorak, ikasketekin, espetxe barruko ekimenetan parte hartuz edo baldintzapeko askatasunean kaleratuz murriztu zezaketen kondena.

1996an ordea, preso guztiei erredentzioak ukatzen zizkien kode penala jarri zen indarrean eta zigorak osorik betetzen hasi ziren. Gainera, beste bi muga jarri zituzten: 20-25 urte preso sozialentzat eta 30 urte euskal preso politikoenentzat.

Lege horren azken aldaketak ordea, 2002-2003 urteetan egin dituzte, eta ondorioz, euskal preso politikoen bizi guztirako kondenak bete behar dituzte. Hori dela eta, erredentzioak kondena osoari aplikatzen dizkiote eta baldintzapeko askatasunean ezingo dira kalera atera euskal preso politikoen. Gainera, hiru laurdenak zigor osotik kalkulatu dira eta ez 20-30 urtetatik. Legearen azken aldaketa horrek, zigorak betetzeko muga absolutua 40 urtera luzatu du eta presoek ezin dituzte EHUn ikasketak egin, UNEDen bakarrik egin ditzakete.



Egoera horren aurrean, Zestoako Etxeratek herritar guztiak animatu nahi ditu antolatzen diren ekimenetan parte hartzera eta bereziki hileko azken ostiraletan plazan egiten diren elkarretaratzetan parte hartzera.

Udaleko berriak

● **GUZTIOK BAT ERAIKINA BOTA DUTE** . Guztiok Bat eraikina bota zuten orain aste batzuk. Ere-
mu horretan etorkizunean, 27 etxebizitza eraikiko dituzte, orain arteko eraikinaren altuera errespetatuz. Arau ordezkatzaileak aldatu aurretik, eremu horretan zortzi etxebizitza eraikitzea aurreikusten zen.

● **BABESTUTAKO APARTAMENTUAK BUKATZEAR DAUDE** . 2005eko azaroan onartu zuten San Juan Zaharren Egoitzako eguneko zentroaren gainean babestutako lau apartamentu egiteko proiektua. 2006ko ekainean eraikitzen hasi ziren, baina hainbat arazoak tarteko, zertxobait atzeratu egin dira lanak. Hala ere, uda amaiera alderako apartamentuak amaituta izatea espero du Udalak. Bestalde, Gizarte Zerbitzuetako teknikariak dagoeneko babestutako apartamentuetako bizilagunak onartzeko ordenantza prestatzen ari dira. Hor zehaztuko dira bizilagunek bete beharreko ezaugarriak. Guztira lau apartamentu eraikiko dituzte: bi apartamentu 48 metro koadrokoak eta beste bi 55 metro koadrokoak. Bizilagunek elkarren arteko bizitza egiteko, erabileran anitzeko gela bat izango dute sarreran eta bulego bat ere izango da Udaleko gizarte laguntzailea joaten denerako.

● **HAUTESKUNDEAK ETA ALKATE BERRIA**. Maiatzaren 27an izan ziren udal hauteskundeetan boto gehien lortu zuen alderdia EAE-ANV izan zen, 824 botorekin. Ondorioz, bost zinegotzi lortu zituen ezker abertzaleko alderdiak. Bigarren indarra, EAJ izan zen 569 botorekin. EAJ alderdiak, lau zinegotzi lortu zituen. Hirugarren indarra, berriaz, EA izan zen 412 botorekin, eta ondorioz, bi zinegotzi lortu zituen.

Erainaren 16an egin zen kargu hartzeko udalbatzarrean, alderdi bakoitzeko hautetsiek, bakoitzak bere alderdiko zerrendaburuaren aldeko botoa eman zuten, eta ondorioz, gehiengo absoluturik izan ez arren, Alazne Olaizola EAE-ANVko zerrendaburua izango da datozen lau urteotan alkate.

● **LILI JAUREGIAN HISTORIAURREKO MUSEOA LEGINGO DUTE** Lili jauregian etorkizunean kokatuko den historiaurrearen museoaren nondik norakoak aurkeztu berri ditu Ekain fundazioak. Ekainberri erreplikaren proiektuaren hirugarren fasean kokatzen da museo, eta arlo horretako Gipuzkoa osoko museo garrantzitsuen kokatuko da. Ekitaldian, Ekain proiektuaren aitzindari Jesus Altuna, Gipuzkoako diputatu nagusi Jose Joan Gonzalez Txabarri, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu Miren Azkarate eta Gorka Unanue alkatea izan ziren. Txabarrik adierazi zuenez, 2007ko aurrekontuaren egoera aztertu eta plangintza egokitu dute, lan guztiak eta proiektuaren bigarren fasea abendurako bukatuta egon daitezela. Oraindik bada lana egiteko, eta fundazioak hartutako erabakiaren ostean, datozen urteotan, Lili jauregia, Lilibe eta inguru guztia egitasmo bakar batean bildu nahi dira. Proiektu hori bultzatzeko, eta zehazki museo Lili jauregian kokatzeko, Europako funtsetatik 1,8 milioi euro jasoko direla adierazi du Gipuzkoako diputatu nagusiak. Ekain proiektuko aitzindariaren hitzetan, Lili jauregiak «asko du erakusteko». Historiaurreko museo Lili jauregian kokatuko den arren, beste eraikin bat ere egingo dute erreken alboan, «jauregian ezin baita dena sartu». Historiaurrearen museo Zestoan kokatzeko hainbat arrazoi badirela nabarmendu du Altunak: «Zestoak historiaurreko ondare garrantzitsuak ditu: Idiakaitz, Euskal Herri osoko aztarnategi zaharrena, Ekaingo santutegia eta Europa mailan ezagunak diren Erralla eta Amalda aztarnategi paleolitiko garrantzitsuak. Hori guztiagatik eskubidea du Zestoak horrelako museo bat edukitzeko».



agenda



TAILA

UZ

IGANDEA

01 Zestoako Txirrindulari taldea Lizarrara zikloturista, jubenil eta kadeteentzat.

8 ASTEBURUA

7- Asturiasera irteera asteburu pasa Agiro Mendi taldeak antolatuta. Larunbatean mendi irteera, sagardotegian afaldu eta igandean Sella ibaia jeitsiko dute piraguatan.

ASTELEHENA

09 Odol ateraketak anbulategian.

-22 ASTEBURUA

21 Agiro Mendi Taldeak antolatuta Kantabriako Ason bailarara irteera asteburu pasa.

San Kristobalak Narrondon

OSTIRALA

06 20:00etan suziriak eta 22:00etan mus, partxis eta eskoba txapelketa.

LARUNBATA

07 17:30ean ume jolasak eta txokolatada. 21:00etan afari herrikoia eta ondoren dantzaldia Jaione eta Jon trikitilariekin eta DJ saioa.

IGANDEA

08 11:00etan Idiakaitz Txistulari taldea. 11:30ean zikloturista federatuen Larrazabal Igoera eta sagardo dastaketa. 18:30ean herri kirolak eta Gorriti bere animaliekin. Arratsaldean eta 22:30ean Irati eta Iñaki trikitilariak.

ASTEARTEA

10 11:00etan meza eta kotxeen bedeinkazioa. ondoren edadetuentzat hamaiketako. 16:00etan puzgarriak eta 22:00etan Irati eta Iñaki trikitilariak.

Karmengo Amaren jaiak Arroabeen

OSTEGUNA

13 9:00etan bonbazoa. Jolasak egun guztian. 17:00etan txokolatada eta saribanaketa. 18:00etan: Poxpolo ta Mokolo pailazoak. 19:00etan: pala txapelketako finala. 21:00etan afaria Ederki Elkartean tanborradan parte hartu behar dutenentzat. 23:00etan tanborrada Zumai txarangarekin. 00:00etan Ikurriña altxatuko da. Goizaldera arte, dantzaldia Laotz taldearekin.

LARUNBATA

14 Koadrilen eguna. 10:30ean koadrilen arteko sukaldaritza lehiaketa. 14:30ean bazkaria eta saribanaketa. 18:30ean: *Sakaren zezenak*. 22:00etan, Punk kontzertua. 23:30ean Drindots goizaldera arte.

IGANDEA

15 Euskal Jai eguna (herritarrei baserritarrez janztea eskatzen zaie) 12:00etan Meza Nagusia Arroa Beheko Abes-

batzarekin, artisau azoka, Idiakaitz Txistulari Taldea. 18:00etan, asto proba Aizarnzabalgo gazteekin. Txorizo eta sagardo dastaketa bertako sagardozaiekin. 22:30ean Sahararen aldeko kontzertua LEOK'K taldearekin. 24:00etan DJ Pajarito goizaldera arte.

16 ASTELEHENA

6:00etan karroza herriko trikitilariekin. 9:00etan baratxuri zopa. 12:00etan Meza Nagusia. Zestoako dantzariak eta Idiakaitz Txistulari Taldea. 18:00etan, eskuz binakako pilota partida: Artetxe eta Urtubia, Beristain eta Seguirolaren aurka. Ondoren, merienda moko, gosea pizteko.

ASTEARTEA

17 12:00etan herriko jubilatuentzako meza. 14:00etan jubilatuen bazkaria trikitilariekin.

OSTIRALA

20 21:30ean herri afaria eta bikotekako santza txapelketa DJ Pajaritorenkin.

Santio Santa Anak Arroagoian

OSTEGUNA

26 Santa Ana eguna. 10:45ean txupinazoa 11:00etan Meza Nagusia. Ondoren Euskal dantzak eta edadetuentzako hamaiketako Herri-etxe elkartean. 17:30ean haur jolasak eta txokolatada. 22:30ean Saioa eta Alabier trikitilarien emanaldia.

OSTIRALA

27 Goizeko 11:00etan Meza Nagusia. 21:00etan herri afaria Estrata soinujoleak eta "Akulu" bertsolariak lagundurik. 23:45ean Erromeria goizaldera arte Lotxo taldeak alaiturik. Goizeko 01:30ean dantza bikote lehiaketa. Saria: bi lagunentzako afaria. 3:00etan Imanol DJ "Pajarito" eta 6:30ean herritarren arteko karroza.

LARUNBATA

28 11:00etan patata tortila lehiaketa (10:45erako Herri-etxe elkartera eraman behar). Idiakaitz txistulari taldea eta Zestoako albokariak. Sagardo lehiaketa, partaideak: Olaberri, Azketa. Igartza-Haundi. Etxeberri, Zelaikua, Azketaerrota eta Haitza. Herritarrei baserritar jantziarekin ateratzea eskatzen zaie. 11:30ean esku pilota partidak. 16:00etan parapente txapelketako finalak. 17:00etan pala txapelketako finalak. 19:00etan "Karmelo Matrakaren" omenez Herri Kirol saioa. Aizakoran: Mendizabal eta Agite Aierbe eta Arria II. aren aurka. Harrijasotzen: Joseba Ostolaza. 23:00etan erromeria Jaione eta Jonekin.

IGANDEA

29 10:30ean Meza Nagusia. 17:00etan Ume jolasak eta txokolatada. 18:00etan Gorriti eta bere abereak. Arratsaldean buru handien kalejira. 22:30ean jai emaiera emateko Imaol DJ "Pajarito" goizaldera arte.

• **S**abel dantza ikastaroa eskainiko du Amancay • Gaztañagak uztaile eta abuztuan Zestoan. Informazio gehiagorako deitu 630559584 telefonora.

AUTOIKASKUNTZA METODOA

BADIRA HIRU IKASTURTE ZESTOAN EUSKARA IKASTEKO METODO HORREKIN HASI GINELA.

AUTOIKASKUNTZA, BATIK BAT, KLASE ORDU "NORMALAK" HARTU EZIN DITUZTENENTZAT EGOKITUA DAGO. ZUZENEKO KLASE ORDUAK (PRESENTZIAZKOAK) ASTEAN HIRU BESTERIK EZ DIRA:

Σ **TUTORETZA. Astean ordubete. Irakasleak ikasleari egokitutako programazioa (lanak) prestatzen dio. Lan horiek ikasleak etxean egin beharrekoak dira.**

Σ **MINTZASAIIOAK. Astean bi orduko saioak dira. Ikaskideak elkartu eta mintzapraktika-ko ariketak egiten ditugu.**

ZER DIOTE IKASLEEK?

Mertxe Urreta (Yogako irakaslea)

Autoikaskuntza metodoa egokia iruditzen al zaizu?

Bai, egokia dela iruditzen zait, denetik lantzen dugu. Tutoretza orduetan irakasleak programazioa ematen dit etxean egin behar dudana lanarekin eta hurrengo tutoretza orduan lanak begiratu, zalantzak argitu eta berriro hurrengo asterako programazioa azaltzen dit. Neure erritmora egiten dut lan. Mintzasaioetan aurten neu naiz mintzataldeko maila apalena duena eta asko saiatu behar izan dut. Mintzaguneak oso garrantzitsuak dira, ikasitakoa praktikan jartzeko, garrantzitsuena euskaraz hitz egitea baita.

Inaxio Mantzisoro (jubilatua)

Zergatik hasi zinen euskarako klaseetara etortzen?

Betidanik, txikitatik dakit euskara baina gramatika aldetik asko falta zait. Lehen ezin zen eskolan euskaraz ikasi eta... Orain jubilatua nagoenez nire hizkuntza hobeto ikastea erabaki dut.

Zer moduz moldatzen zara metodo honekin?

Oso ondo. Mintzaguneetan oso giro polita daukagu. Mintzamenean ni baino maila apalagokoekin nago eta klaseetan abestu, antzerkitxoak egin eta, nola ez, parre puxkat egiten dugu. Nik beste euskaraz hitz egiten laguntzen diet eta haiek niri gramatika arloan laguntzen didate.

Miguel Arribas (nekazaria)

Zergatik hasi zinen euskara ikasten? Zure

ustez derrigorrezkoa al da Euskal Herrian euskara jakitea?

Ni Madriletik etorri naiz, oraindik ia bizimodu dena gaztelaniaz egiten dut. Nik uste dut, ordea, joaten zaren herrialdeko hizkuntza ikastea ezinbestekoa dela. Beste herrialde batera joatean, beste kultura bat duzu aurrean, beste hizkuntza bat; horri errespetua zor diogu, horregatik ari naiz euskara ikasten.

Juan Hervás (gidaria)



Nire kasuan autoikaskuntza da metodorik egokiena. Lanean ordu asko pasatzen ditut eta klase nor-

maletara joatea ezinezkoa zait. Ez nago nire maila berekoekin mintzasaioan baina ez du axola. Hori ona da niretzat. Askok hitz egiten dugu klaseetan eta orain lehen baino azkarago eta hobeto hitz egiten dut. Aitortu behar dut irakasleak ematen dizkidan programazio asko ez ditudala egiten.

Lourdes Olaizola (erizain laguntzailea)


Aurten hasi zara autoikaskuntza metodoarekin, zer moduz?

Bai, euskarako bigarren mailako titulua lortu nahi nuen, euskaltegi-
ra etortzea erabaki nuen. Oso gustura nabil. Oso metodo egokia iruditzen zait, nik ezin baitut, lana dela eta, klase ordu gehiago hartu. Egia esan, irakasleak jarritako programazioa egiteko diziplina ezinbestekoa da. Askotan kosta egiten zait lanak egitea, baina badakit tutoretza ordu-rako eginda eraman behar ditudala eta horregatik egiten diot gogor neure buruari.



danbolin Zulo

Futbol Taldeko jubenilek, kopako finala irabazi dute. Herrira iristean herritar ugari izan zituzten zain garaipena ospatzeko. Urnietan jokatu zuten finala eta 500 herritar joan ziren animatzera.



Mikel Odriozola Plata, Aretxabaletan jokatu zen Euskadiko Boulder Eskalada Txapelketan laugarren postuan sailkatu zen.

X. Ibilaldi Neurtua arrakastatsua izan da aurten ere.

140 lagunek hartu zuten parte: laurogei lagunek 32 km-ko ibilbide luzea egin zuten eta besteek 18,4 km-koa. Amaieran, kamiseta, ziurtagiria eta X. urteurreneko oroigarria ere (erabilera anitzeko labana) jaso zuten.



Agiro Mendi Elkartekoak Europako Mendietan izan

asteburu pasa. Vegarredonda aterpean egin zuten lo eta Ordiales eta Cotalba (2026 metro) gailurrak igo zituzten. Eguraldi oso ona ez izan arren paisaiaren edertasunaz gozatzeko aukera izan zuten.



Zestoako ikasleen etxeetan

Leganeseko Trabenco ikastetxeko 14 ikasle izan dira. Eskola Ibiltariak programan parte hartu zutenean elkar ezagutu zuten eta handik sortu zen ikasturte amaierako ibilaldia elkarrekin egiteko ideia. Lizarran izan dira guztiak elkarrekin eta Aizarnan ere izan ziren herri kiroletan jokatzen.

ERAKOIN BURBUKAK
Azeriziazuna
 (xk)
prestatiak

POTXOLO
 liburu eta opart-
 denda
 garate Kalea, 6
 tel./fax 943 147 133

ONENAK
altzariak
 etxe guztirako altzariak
 tel/fax 943 147 081

943 147 081
 943 147 081
 943 147 081

UGARTE **ELIZVIRIA**

liburu eta opartidenda eta liburu-
 denda eta opartidenda 1990-1991

ERAKOIN BURBUKAK
ERAKOIN BURBUKAK

943 147 081

liburu eta opartidenda eta liburu-
 denda eta opartidenda 1990-1991

txuri-beltz
 argazki — bideo kluba
 iesnal@euskalnet.net

San Juan Kalea, 2 Tf: 943 14 72 27

LORENTXA
liburuak
liburu eta opartidenda
 liburu, opartidenda eta opartidenda
 garate Kalea, 6 tel./fax 943 147 133

liburuak
 liburuak
 liburuak
 liburuak
 liburuak

euskua
liburuak

liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133

MOLLERGI
taberna
 tel. 943 147 389

txoko
taberna
 garate Kalea, 6
 tel. 943 147 133

MIANTXA
zestoa
 tel. 943 147 345

BARATEGIA

LOPENE

tel. 943 147 345 — 943 147 345

ELORZA
janaridenda
 garate Kalea, 6-5
 tel.: 943 147 359

EKAIN
ELEKTRIZTATZA
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133

myReia
gokobezia
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133

ONE
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133

ERAKOIN BURBUKAK
ERAKOIN BURBUKAK
 liburu eta opartidenda eta liburu-
 denda eta opartidenda 1990-1991
 tel./fax 943 147 133

ELORZA
mesleria
 portale 7
 tel. 943 147 139

Romana
akindegia
 garate Kalea, 6 tel. 943 147 359

FOTO
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133

ERAKOIN BURBUKAK
ERAKOIN BURBUKAK
 liburu eta opartidenda eta liburu-
 denda eta opartidenda 1990-1991
 tel./fax 943 147 133

ERAKOIN BURBUKAK
ERAKOIN BURBUKAK
 liburu eta opartidenda eta liburu-
 denda eta opartidenda 1990-1991
 tel./fax 943 147 133

LAGUN ARO
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133
 liburuak Kalea, 2 tel./fax 943 147 133